



## **TXOSTENA: ARABAKO ERRIOXAKO MAHASTIEN ETA ARABAKO TXAKOLINAREN EGOERA, 2022/06/08**

2022ko kanpainako mahastien egoerari buruzko txostenekin hasi gara, eta, hasteko, 2021etik gaur arteko egoeraren berrikuspena egingo dugu.

### **2021eko udazkena**

Mahats bilketa amaituta, azaroko lehen egunetatik euria egin zuen, eta tenperatura altuak era bai, bai Arabako Errioxan, bai Aiarako bailaran. Egoera azaroaren azken herenean aldatu zen, eta ohikoa baino hotzagoa izan zen: euria egin zuen eta elurra, 500 metro inguruko kotetan. Kanpainaren lehen egun horietan, ur ugari erori zen, eta, horri esker, 2021eko urteko defizit metatua bete ahal izan zen. Urte horretan, uda bereziki lehorra izan zen probintzia osoan. Prezipitazioen pilaketaren ondorioz, Arabako Errioxan Ebrok gainezka egin zuen, eta Ebrotik hurbilen zeuden mahastietara iritsi zen.

### **2021-2022ko negua**

Abendua oso beroa izan zen, eta ur ugari botatzen jarraitu zuen Arabako mahasti eremu osoan (Errioxa eta Txakolina). Eguneko tenperatura altuen joera mantendu egin zen 2022ko urtarrileko lehen egunetan. Hala ere, gauez, izozteak ohikoak izan ziren. Hilaren lehen herenetik aurrera, euriaren erregimena izugarri aldatu zen; izan ere, urtarrilean, prezipitazioak urteko lehen egunetan gertatutakoetara murriztu ziren. Horren ondorioz, normalean euritsua den hilabetea urria izan zen plubiometrian, eta balantzea azken 30 urteetako lehorrenetarikoa izan da.

Otsail osoan zehar ere ez zen ia prezipitaziorik izan, goizaldean izotzarekin jarraitu zen, baita eguneko tenperatura erregistro leunekin ere, eta hilabeterako ohikoa den % 25etik gorako intsolazioarekin. Otsaila, urtarrila izan zen bezala, serie klimatologikoko lehorrenetakoa bihurtu zen Araba osoan, bai Arabako Errioxan bai Aiaraldean.

Azkenean, martxoa euritsua izan zen, baina Arabako Errioxan erori ziren 30 l/m<sup>2</sup> eskasek ez zuten lortu neguko defizit metatua konpentsatzea. Txakolinaren eremuko euria ere ez zen nahikoa izan negu lehorra zuzentzeko, nahiz eta, edonola ere, mahastiek prezipitazio urri horiek eskertu zituzten. Bitxikeria meteorologiko gisa, jaso daiteke martxoaren 14ko astean Celia depresioak ordura arte ezagutzen ez zen moduko Saharako hauts hodeia ekarri zuela, gero Estatuko eremu askotan lokatza izango zena, baita Arabako geografia osoan ere. Neguko azken hilabete horretan, egun hotzak eta beroak txandakatu ziren, eta, azkenean, negu meteorologikoaren balantzea egin zen, batez besteko tenperatura altuekin, egun eta gau artean anplitude termiko handiarekin eta ohikoa baino prezipitazio txikiagoekin.



## 2022ko udaberria

Udaberrian euri ugari egin zuen, baita elurra ere, kota baxuetan, apirileko lehen egunetan. Neguan egin ez zuen hotza udaberrian agertu zen, dagoeneko barietate goiztiarren zuntza galtzea hasita zegoenean, eta Arabako Errioxan  $-3^{\circ}$  arteko tenperaturak erregistratu ziren apirileko lehen egunetan. Eskualde horretan, elurra egin zuen 700 metrotik gora, eta Aiarako haranean 300 metrotara zelaiak zuri agertu ziren.

Apirileko hotzek ez zuten ia eraginik izan Arabako Errioxako mahastietan, neguko geldialditik ozta-ozta ateratzen ari zelako. Hala eta guztiz ere, Aiarako haranean ere tenperaturak behera egin zuenez, baina kimuak aurreratuago zeudenez, hotzak kalteak eragin zituen; Riesling, Chardonnay eta Ondarrabi zuri barietateak izan ziren kaltetuenak, hurrenkera horretan. Ondarrabi beltza, berriz, ez zen hain kaltetua izan.

Apirileko hasierako hotzaldiaren ondoren, ohi baino tenperatura altuagoko 10 egun etorri ziren, udan ohikoak direnak, eta horrek mahastiaren garapena erraztu zuen. Aste Santuaren ondoren (apirilak 19), tenperaturak izugarri jaitsi ziren, baina ez ziren erregistro arriskutsuetara iritsi. Eurite handi horien ondorioz eta garairako tenperatura baxuen ondorioz, mahastiak poliki-poliki eboluzionatu zuen, baina perspektiba onekin, lurrean ur ugari zegoelako. Horren guztiaren ondorioz, garapena moteldu egin zen; eta, maiatzaren hasieran mahastiak 15 egun inguruko atzerapena zuen urte arrunt baten aldean.

Hala ere, laboreak maiatzean zeraman atzerapen hori neutralizatu egin zen, maiatzeko tenperatura altuak zirela eta; izan ere, tenperatura horiek oso handiak izan ziren hilaren erdialdean. Udaberriko kimaketan lanean ari zirela, ekaitz isolatuak sortu ziren, euriteekin. Ekaitz horiek, ertainak izan zirenez, ez zuten gorrina agertzeko baldintzarik sortu, eta ez zen akariosi edo erinosi arazorik sortu, ohikoa baino haratago.

Maiatzean, Arabako Errioxan, mahats lagina nahiko ugaria zen aihen berdeen oinarrian, eta desberdina puntan; izan ere, hazkunde handia gertatu zen denbora laburrean, eta horrek eragotzi egin zuen mahats mordoaren garapena harmoniatsua izatea. Arabako Txakolinaren eremuan, mahatsaren galera gertatu zen apirilaren hasierako izotzaldiengatik.

Temperatura altukoaldi horren ondoren eta maiatzeko azken egunetan, tenperatura horiek nabarmen jaitsi ziren, udaberriko urtaro osoko batez bestekoen azpitik ere erregistratu baitziren; hala, hilabetearen amaierarako pixkanaka berreskuratu ziren, eta garai hartako erregistro ohikoagoak lortu zituzten.

Maiatzeko azken egunetan gorrin orban txikiak agertu ziren, baina isolatuta zeudenez eta garatzeko baldintzak betetzen ez zirenez, ez diote arrisku handiagorik eragin mahastien osasunari. Hala ere, arreta handia jartzera eta tratamendu antikriptogamikoak orokortzera behartu zituzten, eta, horregatik, loraldiaren aurreko une horretan, Arabako lurralde osoko mahastien egoera fitosanitarioa oso ona zen.



## Egungo egoera

Maiatzeko eta ekaina hasierako beroaldiak erabat neutralizatu du mahastiak orain dela hilabete zuen atzerapena. Izan ere, lehen loreak maiatzaren amaieran ikusi ahal izan ziren zenbait mahastitan, eta gaur egun mahastia loretan ikus daiteke Arabako mahasti eremu ia guztietan.

**Arabako Errioxan**, oro har, esan dezakegu mahastiak landaretza oparoa duela eta ohikoarekin alderatuta gutxienez hamar egun aurreratu dela. Duela egun batzuetatik hona, mahasti goiztiarrenak mahats mordo mamitsuekin ikusten dira; beraz, hilaren erdialdera, mahats mordo gehienak fruituekin ikusi ahal izango ditugu.

Osasunari dagokionez, Arabako Errioxako mahastiak egoera aparta du gaur egun. Piralak, sitsak, akariosiak eta beste izurrite batzuek normalizat eta ohikotzat har daitekeen garapena erakusten dute. Gorrinari dagokionez, oraingoz arriskuak mugatuak dira, eta apur bat handiagoak dira zurinaren kasuan. Prebentzioarekin, baldintzak egun batetik bestera alda daitezkeelako, orain arte, tratamendu normalekin, onddo horiek kontrolatuta daude. Gaur egun, tempranilloko egoera fenologikorik nabarmenena loraldiaren hasierakoa da (I1), nahiz eta mahasti batzuk loraldi betean dauden (I2) eta aurreratuenak mamitzen hasi diren (J). Bestalde, viura bariatatea, berantiarra, loratzen ari da. Nahiz eta arratsaldeko ekaitzak izateko arriskua dagoen, hala nola ekainaren 4an Bastidan izandakoa, orain arte ez da mahastiaren garapen normalerako eragozpen izan daitekeen fenomeno meteorologikorik gertatu.

**Aiarako haranean**, mahasti gehienak loraldi betean daude (I2), baita mahasti batzuk ere, mamitzearen erdian. Gutxi gorabehera astebete aurreratuko da laborantza. Osasuna ere apartekoa da, orain arte aipatu beharreko eragozpenik gabe, nahiz eta neguko uraren defizita nabaritzen hasi den.

Azken batean, gaur, ekainak 8, mahastia oso aurreratuta dago, oro har osasun egoera bikaina du, eta lorete eta mamitzearen une garrantzi honetan, zeruari begira gaude.

Guardia, 2022ko ekainaren 8a

MAHASTIZAINZA ETA ENOLOGIA ZERBITZUA  
AFA-KO NEKAZARITZA SAILA